



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 26a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatia aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Foru Legea, Irunberriko Udalaren herrilurreko 180.425 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia, zeinaren bidez adierazten baita Foru Parlamentuaren desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurteko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsonen laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia premiatzen da Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-arazoak konponbidean jartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jardunaldi batzuk antola ditzan Alfontso XII.aren gotorlekuko bizimoduari eta bertan izandako gertakari nagusiei buruz. Osoko Bilkurak onetsia (13. or.).
- Erabakia, Iruña-Tuterako Artxidiozesiak eraikin erlijiosoak inskribatu izanari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Espainiako Gobernuaren jarrera, hain zuzen ere bahitutako pertsonak CIAren hegaldietan Guantánamoko legez kanpoko atxiloketa-zentrorra garraiatzean Espainiako aireko espazioa erabil dadin onartu eta baimentzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorren 2. idatz-zatia aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorren 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorren 2. idatz-zatia aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Eskualdeko hirigintza arauak, lurraldearen antolamendurako tresnetako bat, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean arautu ziren, II. titulua-ren III. kapituluan hain zuzen. Martxoaren 22ko 80/1999 Foru Dekretuaren bidez, behin betikoz onetsi ziren Iruñerriko eskualdeko hirigintza arauak, 10/1994 Foru Legeak indarra izan zuen bitartean onetsitako eskualdeko hirigintza arau bakar-rak.

Nolanahi ere, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak indarra hartzeak aldaketa garrantzitsu-a eragin zuen lurralde antolamendua-ren tres-nen arautzean. Alde batetik, tresnen artetik lurral-

dearen antolamenduko jarraibideak eta eskualdeko hirigintza arauak kendu ziren, eta bestetik, tresna berriak sortu, hala nola Nafarroako lurralde estrategia, lurraldearen antolamenduko planak eta lurralde ekintzako plan zuzentzaileak.

Horri dagokionez, Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankor-rak aurreikusten du eskualdeko hirigintza arau-en indarraldia bost urtekoa izanen dela gehienez, deusetan galarazi gabe haien edukia lurraldearen antolamenduko planetan sartzea. Halere, foru lege horren seigarren xedapen gehigarriak sei urteko epea ezartzen du lurralde antolamenduko planak onesteko. Hortaz, aurreikusitako bi epeak legean bat ez datozenez, beharrezkoa da eskualdeko hiri-gintza arauen indarraldia luzatzea, eta, horretara-ko, 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen ira-gankorren 2. idatz-zatiaren testua aldatzea.

Artikulu bakarra. Eskualdeko hirigintza arau-en indarraldia.

Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen gehigarria aldatu, 2. idatz-zatia hain zuzen, eta honela geldituko da:

“Eskualdeko hirigintza arauak, martxoaren 22ko 80/1999 Foru Dekretuaren bidez behin beti-koz onetsitakoek, haien esparru geografikoa barne hartzen duen kasuan kasuko lurralde anto-lamenduko plana onetsi arte izanen dute indarra.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale-an argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Irunberriko Udalaren herrilurreko 180.425 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, Irunberriko Udalaren herrilurreko 180.425 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, Irunberriko Udalaren herrilurreko 180.425 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten duena

ZIOEN AZALPENA

Irunberriko Udalak herrilurreko 180.425 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta desafekta daitezela eskatu du, ondoren 84.644,53 metro koadroekin trukatzeko, "Judasen Benta" izeneko alderdian Acciona Windpower, S.A. enpresak biltegi logistiko bat, aerosorgailuendako palen fabrika bat eta bulegoak instalatu ahal izateko.

Jarduera horretarako instalazioak 110 lanpostu sortuko ditu gutxienez. Horri esker, Irunberri eta eskualdeak bere biztanleriari eutsi ahal izango dio. Gainera, enpresa berriak ezartzeko pizgarria ere izanen da eta horren ondorioz jarduera ekonomikoa eta enplegua ugalduko dira.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 140. artikuluko 5. idatz-zatian xedaturikoaren arabera, Irunberriko Udalak desafektatzeko asmoa duen eremuak lurzati txikiaren mugak gainditzin dituzenez, foru lege bidez onetsi behar da.

1. artikulua. Onura publikoaren deklarazioa.

Irunberriko Udalaren herrilurreko 180.425 metro koadroren onura publikoa deklaratu eta haien desafektazioa onesten da. Eremu hori Irunberriko katastroko lurzati hauei dagokie: 103.218 metro koadro, 3. poligonoko 116. lurzatiokoak dira; 17.308 metro koadro, 4. poligonoko 560. lurzatiokoak; 29.364 metro koadro, 5. poligonoko 86. lurzatiokoak eta 30.535 metro koadro, 5. poligonoko 700. lurzatiokoak. Lur horiek herrilurtzat joko dira foru lege honen 2. artikuluko baldintzetan trukatu arte.

2. artikulua. Zuzenean trukatzeko baimena.

Irunberriko Udalari baimena ematen zaio aurreko artikuluan aipatutako lurak Nicolás Ayesa Eguaras jaunaren ondoko lur hauekin trukatzeko: 62.101 metro koadro, 3. poligonoko 81. lurzatiokoak; 17.583 metro koadro, 3. poligonoko 82. lurzatiokoak, eta 4.960 metro koadro, 3. poligonoko 160. lurzatiokoak. Guztira, 84.644,53 metro koadro dira. Trukearen helburua Acciona Windpower, S.A. enpresak biltegi logistiko bat, aerosorgailuendako palen fabrika bat eta bulegoak instalatu eta, gutxienez, 110 lanpostu sortu ahal izatea da. Baimena ondoko baldintza hauek betetzearen pean egonen da:

a) Trukea egiteko itunaren klausula batek xedatu dezala lurak herri ondarera itzuliko direla baldin eta desafektatzera bultzatu zuten xedeak edo desafektazioaren baldintzak desagertu edo bete gabe uzten badira.

b) Itzulketa klausula hori jaso dadila kontratuak formalizatzeko Jabetza Erregistroan inskribatzen diren agiri publikoetan, Irunberriko Udalak 2007ko uztailaren 31n onetsitako baldintza agirian agertzen den bezala.

c) Irunberriko Udalak 2007ko uztailaren 31n egindako bilkuran onetsitako baldintza agirian herrilurreko 180.425 metro koadro desafektatzeko adierazitako baldintzak bete daitezela. Eremu hori Irunberriko katastroko lurzati hauei dagokie: 103.218 metro koadro, 3. poligonoko 116. lurzatiokoak dira; 17.308 metro koadro, 4. poligonoko 560. lurzatiokoak; 29.364 metro koadro, 5. poligonoko 86. lurzatiokoak eta 30.535 metro koadro, 5. poligonoko 700. lurzatiokoak.

d) Toki entitatearen herri ondarea poliki-poliki murriztu ez dadin, Irunberriko Udalak lurak eros ditzala, 53.191 metro koadro hain zuzen, eta herri ondasunen kalifikazio juridikoa eman diezaiela.

e) Erosi beharreko herrilur berri horiek hautatu eta bertan hobekuntzak egin aurretik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Herrilurren Atalaren onespena beharko da.

Azken xedapenetan lehena. Aplikazio eta garapenerako xedapenak.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau aplikatu eta garatzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2008ko martxoaren 13an egindako Osoko Bilkuran, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Foru lege honen helburua da testu liburuak finantzatzeko programa arautzea; programa hori funts publikoekin ordaintzen diren eta oinarrizko hezkuntza irakasten dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan aplikatuko da.

Espainiako Konstituzioak 27.4 artikuluan ezarri du oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan jasotzen da oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela pertsona guztientzat, eta 3.3 artikuluan ezartzen da oinarrizko hezkuntza lehen hezkuntzak eta bigarren hezkuntzak osatzen dutela.

Aipatu lege organikoko laugarren xedapen gehigarriak, testu liburuei buruz ari dela, ezartzen du ikastetxeen koordinazio didaktikoko organoei dagokiela, autonomia pedagogikoaz dihardutela, irakaskuntzetan erabili beharreko testu liburuak eta gainontzeko materialak aukeratzea; betiere ikasleen adinei eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onetsitako curriculumari egokitutako zorroztasun zientifikoa izanen dute. Halaber, ondokoekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute: Konstituzioan jasotako printzipio, balio, askatasun, esku-

bide eta betebeharrak; legean bertan jasotako printzipio eta balioak; Generoko indarkeriaren kontrako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako printzipioak eta balioak, eta Gizonen eta emakumeen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoak.

3/2006 Lege Organikoko 88.2 artikulua ezartzen du hezkuntza-administrazioek behar diren baliabideak emanen dizkietela ikastetxeei oinarrizko irakaskuntzaren doakotasuna bideratzeko.

Irakurketari, liburuari eta liburutegiari buruzko ekainaren 22ko 10/2007 Legean ezarritakoari jarraikiz eginen da testu liburuen salmenta.

Testu liburuak derrigorrezko hezkuntzak kalitatez emateko erabiltzen den hezkuntza-materialaren zati bat baizik ez direla. Beste hezkuntza-material batzuk ere badaude ikastetxeetako eta ikasgeletako liburutegietan; esate baterako, kontsulta-liburuak, entziklopediak, monografiak, esku-liburuak, ikus-entzunezko materiala, prentsa, ikastetxeek beren ikasleei eskaintzen dizkietenak eta familientzat inolako kosturik ez dutenak. Europako ingurune herrialde gehienek eta autonomia erkidego askok testu liburuen doakotasuna gauzatze-sistemak ezarri dituzte. Gurasoen elkarrekin sistematikoki eskatu izan dute, azken urteetan, testu liburuen doakotasuna.

Hori dela eta, komenigarria da Nafarroako Foru Komunitateak testu liburuak finantzatzeari ekin diezaion, kontuan izanda doakotasuna derrigorrezko hezkuntzako mailetan modu gradualean lortuko den helburu bat dela.

Funts publikoekin ordaindutako ikastetxeetan testu liburuak finantzatzeko programa da Nafarroako Gobernuak aurrera eramane duen jarduera, hezkuntza zerbitzu publikoaren doakotasuna erre- alitate bihurtzeko.

Programa honek, halaber, errespetuzko eta baterako erantzukizunezko jarrerak sustatu nahi ditu ikasleengan, funts publikoekin finantzaturiko ondasunen erabilera dela eta; eta lagungarria izan nahi du familien eta ikastetxeen artean lankidetzari handiagoa izateko, eta ikastetxeen autonomian aurrera egiteko.

1. artikulua. Testu liburuak.

Testu liburuak da, foru lege honen ondorioetarako, material iraunkorra eta buruaskia, ikasleek erabiltzeko eginikoa eta Nafarroako Gobernuak hezkuntza-etapetan curriculumak garatzeko onetsi duen araudian ezarritako edukiak garatzen dituenak.

2. artikulua. Doakotasuna.

1. Diru publikoekin ordaindutako ikastetxeetako testu liburuak, alegia ikastetxe bakoitzak oinarrizko hezkuntzan irakasteko legeaz aukeratu dituen haiek, dohainik izanen dira aipatu irakaskuntzan ari diren ikasle guztientzat.

2. Erregelamenduz zehaztuko dira aipatu ikastetxeek eta gurasoek edo tutoreek foru lege honen xedea diren testu liburuak jasotzeko jarraitu beharreko prozedurak.

3. artikulua. Finantzaketa.

Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak aurrekontu-ekitaldi bakoitzean bilduko ditu testu liburuak finantzatzeko behar diren kontusailak, Erregelamenduz zehaztuko diren formulen arabera.

4. artikulua. Programaren ezaugarriak

1. Testu liburuak finantzatzeko programa mailagaren sistemaz garatuko da.

2. Oinarrizko irakaskuntzetako ikasleek lau ikasturtez erabili beharko dituzte liburuak, horiek aldatzeko eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloari buruz erregelamendu bidez ezartzen dena deuseztatzen ere ukatu gabe.

3. Eskola Kontseiluak hautatutako batzorde bat arduratuko da ikastetxe bakoitzean programa kudeatu eta gainbegiratzeaz.

5. artikulua. Programaren ezarpena.

1. Programa ondoz ondoko ikasturteetan ezarriko da, oinarrizko hezkuntza maila guztiak hartu arte.

2. Programa 2008-2009 ikasturtean hasiko da, eta 2011-2012 ikasturtean egonen da ezarririk.

Xedapen gehigarri bakarra. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuak, indarra hartu eta gehienez sei hilabeteko epean, foru lege hau erregelamendu bidez garatuko du, Hezkuntza Departamentuak proposatuta eta Nafarroako Eskola Kontseiluak bere txostena eman ondoren.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetu egiten da foru lege honek xedatuari kontra egiten dion maila bereko ala apalagoko arau oro.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

2. artikulua kentzeko zuzenketa.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko zuzenketa

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko zuzenketa

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko zuzenketa

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bakarra kentzeko zuzenketa.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenengoa kentzeko zuzenketa.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK ETA
NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
FORU PARLAMENTARIEN
ELKARTEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena kentzeko zuzenketa.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia, zeinaren bidez adierazten baita Foru Parlamentuaren desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, zeinaren bidez adierazten baita Foru Parlamentuaren desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea. Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko otsailaren 29ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, zeinaren bidez adierazten baita Foru Parlamentuaren desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea

1. Legebiltzar honek berriz ere adierazten du bere desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea, 2008ko abenduan hitzarmen indarduna bukatutakoan, jakitun horretarako beharrezkoa dela Defentsa Ministerioak poligono horren ordezko bat aurkitzea.

2. Legebiltzar honek Espainiako Gobernua premiatzen du erabaki dezan Bardeako tiro poligonoa

egoki irizitako lekura aldatzea edo deuseztatzea, Bardeako Komunitatearen eta Defentsa Ministerioaren arteko hitzarmena bukatzeko falta den denbora tarterako, halako moduz non aipatu hitzarmena bukatutakoan poligonoa desegin ahalko den.

3. Legebiltzar honek Defentsa Ministerioa premiatzen du tiro eta bonbardaketa poligonoaren eremua leheneratzeko plan bat taxutu eta egin dezan; planak ondokoak jasoko ditu gutxienez ere: lehergailu arriskutsu guztiak desaktibatzea, milaka tona txatar erauztea eta lurra deskontaminatzea.

4. Legebiltzar honek erakunde eskudunak premiatzen ditu babes-figura bat eman diezaien poligonoak hartzen dituen 2.200 hektarea horiei, halako moduz non uztartu egingen diren, batetik, pertsonen segurtasuna –izan ere, lehergai arriskutsuak egon daitezke bertan–, eta, bestetik, bertan bizi diren espezie eta landarediaren babesa.

5. Onetsitako erabaki hauek ondokoei igorriko zaizkie: Espainiako Gobernuko lehendakariari, Defentsa Ministerioari, Nafarroako Gobernuari eta haren lehendakariari, Bardeako Komunitateari, Bardeako Komunitatearen entitate gozamen-kideei, Poligonoaren aurkako Batzordeari eta hedabideei.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du autonomia erkidego mugakideekin hitzarmenak sinatzeko aukera azter eta kudea dezan, Nafarroako lurreko telebista digitaleko kateak autonomia erkidego horietan ikusi ahal izateko, baita alderantziz ere, betiere Nafarroako errealitate instituzionala errespetatzen bada.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezen, behin hitzarmenak sinatuta, Industria Ministerioari eska diezaion lurreko telebista digitaleko behar den multiplexa eslei diezaion foru erkidegoari.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsoneri laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsoneri laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsoneri laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoa ebalua dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako administrazio publikoek adineko pertsoneri laguntza integrala emateko orain arte egin duten politika publikoaren ebaluazioa egin dezan 2008ko lehenbiziko seihilekoan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du behin ebaluazio hori burututa adinekoei buruzko plan bat aurkez dezan Parlamentuan, 2008ko bigarren seihilekoan, adineko pertsonen partaidetza handiarekin prestatua, adinekoren eskubideak indartze eta sendotze aldera eta, halaber, adinekoak babesteari eta artatzeari buruzko politika integralen nahiz zahartzaro akti-

boa sustatzeko politika integralen esparru orokorra zehazte aldera.

Plan horrek, zeina gero foru lege batean jaso ahalko bailitzateke, eduki horizontala eta askotarikoa izan beharko du, eta kontuan hartu behar ditu populazio-talde honek hainbat alorretan dituen behar espezifikoa, hala nola honakoetan: aisialdia, kultura, etxebizitza, erabilerraztasuna, osasuna, gizarte zerbitzuak, pentsioak edo hezkuntza.

Erabakia. Horren bidez, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia premiatzen da Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia premiatzen da Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betetz, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia premiatzen da Pirinioez gaindiko errepidea eraikitzeari uko egiteko erabakia berrazter dezala

Nafarroako Parlamentuak erabaki du Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiari eskatzea berrazter dezala Iruña eta Salies de Béarn arteko hiru erreiko errepidea egiteari uko egiteko erabakia, interesik handiena baitu Nafarroarentzat, eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia gonbidatzen du, halaber, Nafarroako Gobernuarekiko elkarrikeri berritara, azpiegitura hori egiteko aukera emanen duen behin betiko akordioa iristearren.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-arazoak konponbidean jartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-arazoak konponbidean jartzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-135 errepidean egin beharrekoak egin ditzan bide horrek dituen azpiegitura-arazoak konponbidean jartzeko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-135 errepidearen inguruan gauzatu ditzan behar diren proiektuak, ahalbidetzeko, horrela, Pirinioetako haranetako garapen orekatu eta iraunkor bat; betiere, Pirinio Atlantikoe-tako Kontseilu Nagusiak Pirinioez gaindiko errepideari uko egitearen iragarpenak sortu duen egoera berriaren ondorioekin bat etorriko den konponbide arrazional baten esparruan.

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jardunaldi batzuk antola ditzan Alfontso XII.aren gotorlekuko bizimoduari eta bertan izandako gertakari nagusiei buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jardunaldi batzuk antola ditzan Alfontso XII.aren gotorlekuko bizimoduari eta bertan izandako gertakari nagusiei buruz. Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentutaldeak aurkeztutako mozio bat, 2008ko otsailaren 1eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jardunaldi batzuk antola ditzan Alfontso XII.aren gotorlekuko bizimoduari eta bertan izandako gertakari nagusiei buruz

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Alfontso XII.aren gotorlekuari buruz etorkizunean egiten diren jarduketa guztietan kontuan izan dadin bertan errepresaliatu eta fusilatutakoen oroimena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gotorlekuko bizimoduari eta bertan izandako gertakari nagusiei buruzko jardunaldiak antola ditzan 2008an, giltzapetuen ihesaldi masiboaren 70. urteurrena betetzen baitira, errepresaliatuen oroimenari ohore egitea eta gertakariak behar bezala ezagutzea helburu.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bat egin dezan gotorlekuan giltzapetuta egon ziren pertsona guztiei hurrengo hilabeteetan hainbat erakundek eta elkarte zibilek egin nahi dizkieten omenaldiekin.

Erabakia, Iruña-Tuterako Artxidiozesiak eraikin erlijiosoak inskribatu izanari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 14an egindako bileran, Iruña-Tuterako Artxidiozesiak eraikin erlijiosoak inskribatu izanari buruzko erabakia onetsi zuen. Horren jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2008ko otsailaren 1eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia, Iruña-Tuterako Artxidiozesiak eraikin erlijiosoak inskribatu izanari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuak, ikusita Iruña-Tuterako artxidiozesiaren jokabideak –batik bat, erabile-ra erlijiosoko eraikinak inskribatzeko prozesu osoan zehar informaziorik eman ez izanak– udal eta herritar askorengan sortu duen haserrea, Nafarroako Gobernua premiatzen du bi aldeen arteko bitartekotza egin dezan, udal arduradunek eta, hartara, ukitutako herritarrek, bertatik bertara jakin dezaten zer dela-eta hartu den eraikin horiek erregistroan inskribatzeko erabaki hori.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea bere gain hartu eta doan egin dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasunbideak lipodistrofien kirurgia konpontzailea doan egin dezan.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Espainiako Gobernuaren jarrera, hain zuzen ere bahitutako pertsonak CIAren hegaldietan Guantánamoko legez kanpoko atxiloteta-zentrora garraiatzean Espainiako aireko espazioa erabil dadin onartu eta baimentzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Espainiako Gobernuaren jarrera, hain zuzen ere bahitutako pertsonak CIAren hegaldietan Guantánamoko legez kanpoko atxiloteta-zentrora garraiatzean Espainiako aireko espazioa erabil dadin onartu eta baimentzekoa."

Legebiltzarrak 2008ko martxoaren 13an egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko azaroaren 23ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gizarte zerbitzuen zorroan prestazio bermatu gisa sar ditzan gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuek ematen dituzten zerbitzuak."

mozioa baztertzea. Mozio hori 2008ko otsailaren 1eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	